

IKASLEAK | ESTUDIANTES



Konexioak_Lab

Deialdia | Convocatoria
2026

ksigune

WWW.KSIGUNE.EUS

KSIgune gara.

Euskadiko kultura- eta sormen-sektoreetan murgiltzen laguntzen dizugu, lankidetzaz sustatuz, ikasleentzako prestakuntza, laguntza eta ekimenen bidez.

Gure zerbitzuen artean **Konexioak** programa dago. Honek aukera ematen dizu proiektuen **deialdietara aurkezteko**, zure kontaktuen sarea zabaltzeko, **prestakuntza eta topaketa ezberdinetan parte hartzeko**, eta lankidetzaz proiektu bat burutzeko behar duzun **aholkularitza** eta laguntza jasotzeko.

Somos KSIgune.

Te ayudamos a conocer y colaborar con los sectores culturales y creativos en Euskadi, a través de formación, ayudas e iniciativas para estudiantes.

Entre nuestros servicios está el programa **Konexioak**, que te permite **presentarte a convocatorias** de proyectos, **participar en formaciones y encuentros** para ampliar tu red de contactos, y contar con **asesoramiento** para hacer un proyecto en colaboración.



➤ Zer da Konexioak_Lab?

Euskadiko kultura eta sormen industriren erronkei erantzuteko irtenbide berritzaileak diseinatzera gonbidatzen zaituen deialdia da. Enpresek erronka bat proposatzen dute, eta hainbat diziplinatako gradu, master edo doktoregoko ikasleek taldean eta enpresarekin lankidetzan landuko duzue.

Lau fase ditu:

- 1 **MARTXOA - MAIATZA**
KSIgunek enpresek proposatutako **erronkak** aukeratu ditu, beren prozesu, produktu edo zerbitzuekin lotura dituztenak.
- 2 **EKAINA - IRAILA**
Graduko, masterreko eta doktoletzako ikasleek zuen intereseko erronkan parte hartzeko hautagaitza aurkeztu ahal izango duzue, eta guk erronka bakoitzerako taldeak aukeratuko ditugu.
- 3 **URRIA - AZAROA**
Bootcamp-a egingo da, non modu kolaboratiboan esperimendu, ikasi eta soluzioak diseinatu eta probatu ahal izango dituzuen. Bertan, 8 astez, astean saio presentzial bat izango duzue, erronka ebartzeko duen taldearekin batera, bai eta lan indibiduala ere.
- 4 **AZAROA-ABENDUA**
Bootcamp-aren amaieran, **emaitzak zabalduko ditugu**, proiektu bakoitzaren portfolioak prestatuko ditugu eta parte-hartzaileei egiaztagiriak emango dizkiegu.

➤ ¿Qué es Konexioak_Lab?

Es una convocatoria que te invita a diseñar soluciones innovadoras en respuesta a desafíos de las Industrias Culturales y Creativas en Euskadi. Las empresas proponen un reto y estudiantes de grado, máster y doctorado de distintas disciplinas lo abordaréis en equipo, y en colaboración con la empresa.

Tiene cuatro fases:

- MARZO - MAYO**
KSIgune ha seleccionado **retos** propuestos por empresas, que están relacionados con sus procesos, productos o servicios.
- JUNIO - SEPTIEMBRE**
Estudiantes de grado, máster y doctorado podéis presentar una candidatura para participar en el reto de vuestro interés y seleccionaremos los equipos para cada reto.
- OCTUBRE - NOVIEMBRE**
Tendrá lugar el **bootcamp**, un espacio donde podréis experimentar y aprender de forma colaborativa, y diseñaréis y testearéis soluciones. Durante 8 semanas, tendréis una sesión presencial por semana que reunirá al equipo de cada reto, así como trabajo individual.
- NOVIEMBRE - DICIEMBRE**
Difundiremos los resultados del bootcamp, y crearemos los portfolios de cada proyecto y os entregaremos los certificados acreditativos.



- **EROALEAK:** ikus-entzunezko hizkuntzatik pentsamendu kritikora
- **CONDUCTORES:** del lenguaje audiovisual al pensamiento crítico



→ EROALEAK: ikus-entzunezko hizkuntzatik pentsamendu kritikora

by **El Santo Films**

Material natural bat, aztergai ez ezik, soinu-lengoaia berri bat sortzeko tresna ere bihur daiteke?

El Santo Films Zona Wao dokumentalaren bigarren zatian ari da lanean, eta kobreak erazketa du aztergai. Testuinguru horretan, produkzio-etxeak kobrezko gailu bat garatzea proposatzen du, elementu naturaletatik datozen seinaleak, bibrazioak edo bulkada elektrikoak dokumentalaren soinu-bandaren parte izatera iristen diren soinu bihurtzeko gai dena. Prozesu naturalak soinu-konposizio bihurtu nahi dira, teknologia, sorkuntza artistikoa eta materialari berari (kobreak) eta haren inpaktuari buruzko hausnarketa kritikoa konektatuz.

Erronka honek ikus-entzunezko sorkuntzaren, ikerketa aplikatuaren, soinu diseinuaren eta jasangarritasunaren arteko lan espazio bat irekitzen du, istorioak ikuspegi esperimentalago eta kontzienteago batetik kontatzeko hizkuntza berriak garatuz.

Parte hartu!

Materialen azterketan eta eraldaketan, gailuen diseinuan, testuinguru sozialetan, komunikatzeko modu berrietan eta ikerketa teknologiko-artistikoari esker ikus-entzunezko ekoizpenaren jasangarritasunean laguntzeko interesa baduzu, ezagutu egin nahi zaitugu!

→ CONDUCTORES: del lenguaje audiovisual al pensamiento crítico

by **El Santo Films**

¿Puede un material natural convertirse no solo en objeto de estudio, sino también en herramienta para crear un nuevo lenguaje sonoro?

El Santo Films trabaja en la segunda parte del documental Zona Wao, que aborda el extractivismo del cobre. En este contexto, la productora propone desarrollar un dispositivo de cobre capaz de transformar señales, vibraciones o impulsos eléctricos procedentes de elementos naturales en sonidos que lleguen a formar parte de la banda sonora del documental. Se trata de convertir procesos naturales en composición sonora, conectando tecnología, creación artística y reflexión crítica sobre el propio material (el cobre) y su impacto.

Este reto abre un espacio de trabajo entre creación audiovisual, investigación aplicada, diseño sonoro y sostenibilidad, desarrollando nuevos lenguajes para contar historias desde una perspectiva más experimental y consciente.

¡Participa!

Si tienes interés en el estudio y la transformación de materiales, el diseño de dispositivos, así como en explorar contextos sociales, nuevas formas de comunicación y de contribuir a la sostenibilidad de la producción audiovisual gracias a la investigación tecnológica-artística, ¡queremos conocerte!



→ **TXALOMETROA 2.0:**
antzerkiaren
emozioa neurtzen

→ **TXALOMETROA 2.0:**
medir la emoción
del teatro



→ TXALOMETROA 2.0: antzerkiaren emozioa neurtzen

by **HIKA Teatroa**

Nola neurtzen da obra baten eragina txaloetatik edo sarreren salmentatik haratago?

HIKA Teatroak TXALOMETROA birpentsatzeko erronka luzatu digu, ikuskizunak baloratzeko daukaten tresna hau esperientzia digital interaktibo eta gamifikatu bihurtzeko. Helburua publikoaren feedbacka jasotzea, bistaratzea eta antzerki-esperientziaren parte aktibo bihurtzea da, teknologiaren eta datuen bidez eszenaren eta entzuleen arteko harreman-modu berriak aztertuz.

Erronka honek arte eszenikoen, diseinu digitalaren eta esperientziaren analisiaren arteko intersektzioa aztertzei aukera eskaintzen du, kultura-sektoreko arrakala digitala murrizteko eta artearen eragin emozionala neurtzeko modu berriak aztertzei.

Parte hartu!

Esperientzien diseinua, interakzio digitala, datuak eta arte eszenikoak interesatzen bazaizkizu, eta teknologia eta kultura lotzeko modu berriak esperimentatu nahi badituzu, gure taldean parte hartzera gonbidatzen zaitugu!

→ TXALOMETROA 2.0: medir la emoción del teatro

by **HIKA Teatroa**

¿Cómo se mide el impacto real de una obra más allá de los aplausos o la venta de entradas?

HIKA Teatroa lanza el reto de repensar TXALOMETROA, su herramienta de valoración de espectáculos, para transformarla en una experiencia digital interactiva y gamificada. El objetivo es recoger el feedback del público, visualizarlo y convertirlo en parte activa de la experiencia teatral, explorando nuevas formas de relación entre escena y audiencia mediante la tecnología y los datos.

Este reto ofrece una oportunidad para explorar la intersección entre artes escénicas, diseño digital y análisis de la experiencia, contribuyendo a reducir la brecha digital en el sector cultural y a repensar cómo medimos el impacto emocional del arte.

¡Participa!

Si te interesa el diseño de experiencias, la interacción digital, los datos y las artes escénicas, y quieres experimentar nuevas formas de conectar la tecnología con la cultura, ¡queremos conocerte!



→ Zaintzen duten komunitateak

→ Comunidades que cuidan



→ Zaintzen duten komunitateak by Alda2U

Nola indartu dezakegu komunitate-bizitza eta zainketa partekatuak cohousing-a bezalako bizikidetza-eredu berrietan?

Alda2U-k proposatzen duen azterketak diseinuak, sormenak eta teknologiak eguneroko bizitzaren antolaketa, zainketak eta erabaki kolektiboak nola hobetu ditzaketen arakatzea du helburu. Arlo soziosanitarioko esperientziatik abiatuta, erronka honek laguntza-sareak indartu nahi ditu, pertsonengan oinarritutako bizikidetza jasangarriagoak eraikiz, eta, horretarako, irtenbide inklusiboagoak sustatzen dituzten bizitza ereduak asmatu eta prototipatzera gonbidatzen du.

Erronka honek berrikuntza soziala diseinuarekin, teknologiarekin eta ikerketa aplikatuarekin lotzeko aukera eskaintzen du, benetako erronkei helduz, hala nola zahartzaroa, bakardadea edo zaintza-eredu berrien beharra.

Parte hartu!

Interesa baduzu testuinguru sozial errealetarako irtenbideak diseinatzen, zainketei eta komunitate-bizitzari buruz lan egiten, eta sormenak eta teknologiak gizartean eragina nola izan dezaketen aztertzen, ezagutu nahi zaitugu!

→ Comunidades que cuidan by Alda2U

¿Cómo podemos fortalecer la vida en comunidad y los cuidados compartidos en nuevos modelos de convivencia como el cohousing?

Alda2U propone explorar cómo el diseño, la creatividad y la tecnología pueden ayudar a mejorar la organización de la vida cotidiana, los cuidados y la toma de decisiones colectivas en estos entornos. A partir de su experiencia en el ámbito sociosanitario, este reto invita a investigar, idear y prototipar soluciones que refuercen las redes de apoyo, fomenten la autonomía y contribuyan a formas de convivencia más sostenibles, inclusivas y centradas en las personas.

Este reto ofrece una oportunidad para conectar la innovación social con el diseño, la tecnología y la investigación aplicada, abordando desafíos reales como el envejecimiento, la soledad o la necesidad de nuevos modelos de cuidado.

¡Participa!

Si te interesa diseñar soluciones para contextos sociales reales, trabajar en torno a los cuidados, la vida comunitaria y el bienestar, y explorar cómo la creatividad y la tecnología pueden generar impacto social, ¡queremos conocerte!

● Parte hartu nahi duzu?

Bilatzen ditugun ikasleak...

- **Edozein diziplinatako gradu bat (3. edo 4. maila), masterra edo doktoretza** Euskadiko Unibertsitate edo Goi Mailako Arte Eskola batean egiten ari direnak, edo duela gutxi maila horretako ikasketak amaitu dituztenak.
- Benetako proiektu batean haien ezagutza aplikatzeko gogoia dutenak.
- **Sormen eta kultura sektoreetan** eta deialdi honetako **erronketan** interesa dutenak.
- Talde-proiektuan partehartze aktiboa izateko konpromezua hartzeko prest daudenak.

Kontuan izan...

- **Hautagaitza indibiduala da**, eta ikasle bakoitzak bere hautagaitza aurkeztu behar du.
- Aukeraketa prozesuaren ostean, batzorde antolatzaileak osatuko ditu **proiektu-taldeak**.
- **Ikasle bakoitzak proiektu-talde bakarrean** parte hartuko du eta erronka espezifiko batean izango du fokua.
- Deialdiko hizkuntza ofizialak **euskara eta gaztelania** dira, eta proiektu-talde bakoitzak erabakiko du zein erabili laneko komunikazioarako.
- Bootcamp-ak gutxi gorabehera 40 orduko dedikazioa (1,5 ECTS) eskatzen du, eta astean saio presentzial bat, mentoría birtualak, profesionalen laguntza eta lan autonomoa konbinatzen ditu plataforma digital baten bidez.

● ¿Quieres participar?

Buscamos estudiantes que...

- Estén **cursando un grado (3º o 4º curso), máster o doctorado de cualquier disciplina** en una Universidad o Escuela Artística Superior de Euskadi, o que hayan terminado estudios de este nivel recientemente.
- Quieran aplicar su conocimiento a un proyecto real.
- Tengan interés en los **sectores culturales y creativos** y los **retos** propuestos en esta convocatoria.
- Puedan asegurar su compromiso a participar activamente en el proyecto grupal en el período requerido.

Para tener en cuenta...

- La **candidatura es individual**, y cada estudiante deberá presentar la suya.
- Tras el proceso de selección, el comité organizador formará los **equipos de trabajo**.
- **Cada estudiante tendrá un único equipo de proyecto** y se enfocará en un reto específico.
- Los idiomas oficiales de la convocatoria son el **euskera y el castellano**, y cada equipo de proyecto decidirá con cuál comunicarse para trabajar.
- El bootcamp requiere una dedicación aproximada de 40 horas (1,5 ECTS) y combina una sesión presencial semanal, con mentorías virtuales, acompañamiento de profesionales y trabajo autónomo a través de una plataforma digital.

➔ Zein baliabide jarriko ditugu eskuragarri?

Proiektu-talde bakoitzak honako baliabideak izango ditu:

- **Formakuntza eta mentorizazioa**, erronkari buruzko ikerketa-prozesuan eta soluzioaren kontzeptualizazioan, diseinuan eta aurkezpenean oinarrituta.
- Erronka planteatzen duen enpresarekin **zuzeneko lankidetz**a, eta beste erakunde, profesional edo ikerketa talde batzuen laguntza jasotzeko aukera, prozesua aberasteko eta ezarritako helburuetan laguntzeko.
- Gehienez 2.800 euroko **finantzaketa**, planteatutako erronkari erantzuteko eta talde-proiektua garatzeko. Bootcamp-en aurrez aurreko saioetan parte hartzeko garraio gastuak konpentsatzeko laguntza gehigarria ere eskainiko dugu.

➔ ¿Qué recursos ponemos a tu disposición?

Cada equipo de proyecto contará con:

- **Formación y mentorización** enfocada en el proceso de investigación sobre el reto, así como en la conceptualización, el diseño y la presentación de la solución.
- **Colaboración** directa con la empresa que plantea el reto, y posibilidad de recibir acompañamiento de otras entidades, profesionales o grupos de investigación, para enriquecer el proceso y contribuir a los objetivos marcados.
- **Financiación** de un máximo de 2.800 euros para el desarrollo del proyecto grupal en respuesta al reto planteado. También ofreceremos apoyo adicional para compensar los gastos de transporte para participar en las sesiones presenciales del bootcamp.

Konexioak_Lab Aukerak eta onurak

Enpresaren benetako erronka bati heltzea eta ikasten duzuna behar profesional zehatzekin konektatzea.

Abordar un reto real de empresa, conectando lo que estudias con necesidades profesionales concretas.

1

Diziplina anitzeko talde baten parte izatea eta talde lana, pentsamendu kritikoa, sormena, komunikazio eraginkorra eta proiektuen kudeaketan gaitzea.

Ser parte de un equipo multidisciplinar y desarrollar competencias clave como el trabajo en equipo, el pensamiento crítico, la creatividad, la comunicación y la gestión de proyectos.

2

Konexioak_Lab Oportunidades y beneficios

Metodologia berritzaileak eskuratzea (esperimentazioa, prototipatzea, soluzioak baliozkotzea).

Acceder a metodologías innovadoras (experimentación, prototipado, validación de soluciones).

3

Garapen profesionalean eta enpleagarritasunean aurreapausoak ematea: zure profila indartuko duzu, kontaktu sarea zabalduko duzu eta Euskadiko komunitate akademiko, sortzaile eta enpresarialarekin konektatzeko aukera izango duzu.

Generar un impacto directo en tu desarrollo profesional y empleabilidad: refuerzas tu perfil, amplías tu red de contactos y te conectas con la comunidad académica, creativa y empresarial de Euskadi.

4

Beste lan-testuinguru eta testuinguru akademiko batzuetan aplikatu ahal izango duzun prestakuntza osagarria. Adib.: Zure pitch/hitzaldia prestatzeko prestakuntza.

Formación complementaria que podrás aplicar en otros contextos laborales y académicos. Ej.: Formación para preparar tu charla/pitch.

5

Zuen proiektuaren ikus-entzunezko porfoliorako materialak (bideoa eta argazkia).

Materiales para el portfolio audiovisual de vuestro proyecto (vídeo y foto).

6

Ekimenean parte hartzeari buruzko elkarrizketetan eta beste dibulgazio ekintza batzuetan parte hartzea.

Participación en entrevistas y otras acciones de divulgación sobre tu participación en la iniciativa.

7

Garatutako kompetentzien eta emandako ordu kopuruen egiaztagiria.

Certificado de las competencias desarrolladas y dedicación horaria.

8

Enpresek beren erronkaren baitan eskaini ditzaketan beste aukera eta egiaztagiri batzuk.

Otras certificaciones y oportunidades ofrecidas por las empresas en el marco de su reto.

9

☛ Parte hartu!

Zure berri izan nahi dugu, zure motibazioa eta aukera honek egin diezazukeen ekarpenak zeintzuk diren jakin nahi dugu. Era berean, aukeratu duzun erronkari irtenbidea emateko bidean, taldean egiteko dituzun ekarpenak zeintzuk diren jakin nahi dugu, zure esperientzia, ezagutzak eta gaitasunak kontuan hartuta.


[>>> Formularioan sartu.](#)

☛ ¡Participa!

Queremos conocerte, tu motivación y lo que crees que esta oportunidad te puede aportar desde el punto de vista formativo y profesional. A su vez, podrás contarnos qué crees que puedes aportar tú en un equipo con conocimientos y competencias diversas para desarrollar una solución al reto que has elegido.

[>>> Accede al formulario.](#)

DATA GARRANTZITSUAK | FECHAS IMPORTANTES



☛ Dena irakurri ostean, zalantzarik baduzu...

Laguntzeko prest gaude. Idatziguzu: ksigune@ksigune.eus

☛ Y si aún tienes dudas...

Estamos aquí para ayudarte. Escríbenos a ksigune@ksigune.eus



Konexioak

_Lab

Sustatzailea | Impulsa



Laguntzailea | Apoya

